

## Nola landu dezaket lurra?

Gure baratzeko lurra lantzerako orduan, edozein dela ere lanaren sakonera, honako helburu hauek betetzen saiatu beharko ginateke:

- Ereite edo landaketarako lurra goxo-goxo uztea.
- Lurrari ematen diogun materia organikoa, konpost, [simaur](#) edo ongarri berde bezala, barneratzen azkartzea. [Zer ongarri erabili dezaket?](#)
- Bere gisa sortzen diren basa-belarrak kentzea.
- Lurraren egitura hondatzen saihestea.

Lurra lantzerakoan kontuan izan behar dugu ekosistema batean eskua sartzen ari garela eta beraz, desorekak sortzea saihestu behar dugula. Horrexegatik eta aipatutako helburuak burutu ahal izateko, lurra lantzerako orduan, honako aholkuak jarraitzea gomendatzen dizuegu:

- Arretaz begiratu lurraren sasoiari. Aitzurra sartu aurretik, lurra, ez oso hezea, ezta oso lehorra dagoela ziurtatu beharko genuke. Horretarako, lurra hartu behar da esku artean, eta lur zokorrak erraz desegiten direla atzeman behar dugu. Horixe izango da hezetasun maila egokia duen seinale. Hala ez bada, hobe lana atzeratzen badugu.
- Lurra lantzerakoan ez da eraldatu behar lurraren lehen 30 cm-etatik haratago.
- Barazkien gosearen arabera udazken/neguan materia organikoa heldua gehitu (simaurra edo konposta).
- Udazkenean ongarri berdeak gehitu, batik bat, lur pobre edo gaizki zaindutakoen kasuan.
- Udaberri osoan zehar baratza eremua ongi jorratua eduki behar dugu, belar desegokien kompetentzia ekiditeko. Hala ez bada, belarrek gure landareak itotzea saihesteko, estaltzaileak erabiltzea komeni da. [Irakurri udaberriko lurra nola prestatu](#)
- Makinari astuna edo hauen erabilera okerra ekidin; izan ere, honek lurren trinkotze eta okertzea eragin baitezakete.
- Azkenik, 2-3 urtetik behin lurra kareztatzea praktika osasuntsua izan daiteke lurraren egitura hobetu eta azidotasuna kontrolatzeko, pH azidoa duten lurretan.

## ¿Cómo labro la tierra?

Podemos labrar el suelo de manera más profunda o de manera más superficial, pero cualquiera que sea la profundidad a la que trabajemos el suelo de nuestra pequeña huerta, estos son los objetivos que debemos intentar lograr:

- Dejar el suelo bien suelto para poder sembrar o plantar.
- Mejorar la penetración de la materia orgánica que aportamos en forma de compost, [estiércol](#), abono verde, etc. [¿Qué abono puedo usar?](#)
- Eliminar las hierbas adventicias que crecen de forma natural.
- Evitar en lo posible el deterioro de la estructura del suelo.

Al trabajar la tierra debemos ser conscientes de que estamos manipulando un ecosistema, y que por tanto, debemos evitar crear desequilibrios. Por esta razón, y con el fin asimismo de cumplir los objetivos mencionados, conviene seguir estos consejos a la hora de labrar un suelo:

- Debemos observar con detenimiento el estado de la tierra. Antes de empezar a trabajar con la azada, debemos asegurarnos de que no está ni muy húmeda ni muy seca. Para ello, cogeremos una porción de suelo, y si la humedad es la adecuada, deberíamos de ser capaces de deshacer fácilmente los terrones con la mano. En caso de que no sea así, conviene posponer la tarea.
- No conviene profundizar más de 30 cm.
- Dependiendo de las necesidades de nutrientes las hortalizas, tendremos que añadir materia orgánica descompuesta (estiércol o compost) en otoño/invierno.
- En tierras pobres o mal cuidadas, conviene añadir un abono verde en otoño.
- Debemos asegurarnos que durante toda la primavera la huerta esté bien trabajada, para evitar la competencia de las hierbas adventicias. En caso contrario, y con el fin de que las hierbas no ahoguen nuestros cultivos, habría que utilizar acolchados apropiados. [Lee cómo preparar la tierra para primavera](#)
- Debemos evitar la utilización de maquinaria muy pesada pues compacta la tierra.
- En suelos con pH ácido, aportar cal 2-3 años puede resultar una práctica saludable, porque mejoramos la estructura del suelo al tiempo que controlamos su acidez.